## HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA SELEKTIBORAKO BOSGARREN EDUKIONTZIA

*Arratzua-Ubarrundiako Udalak hondakin organikoak jasotzeko bilketa-sistema berri bat jarriko du martxan.*

Udalak, gaur egun, hiru hondakin-motaren bilketa selektiboa egiten du (beira, papera eta kartoia eta plastikozko eta metalezko ontzi arinak). Hondakin horiek bereizita bilduta, birziklatzera eramaten dira, eta, horrela, lehengaia berreskuratzen da produktu berriak egiteko. Gainera, kudeaketa-gastuei aurre egiteko itzulkin ekonomikoak ere badakartza.
Laugarren hondakin mota, "errefusa", askok, gaizki, "organikoa" deitzen diona, %40 baino gehiago bio-hondakinez osatuta dago (fruta eta barazkien azalak, haragi eta arrain hondarrak, etab.). Hondakin horiek ere jaso daitezke modu selektiboan, eta gure ingurunean egiten duten kaltea gutxitzeko kudeaketa-moduak badaude.
Beraz, *zergatik ez ditugu hondakin horiek baliabide bihurtzen?*
Etorkizunean, **bosgarren edukiontzi** marroiaren bidez zati organikoa biltzen dugunean, edo **konpostagailu domestikoa** erabilita, denon artean, eta modu boluntarioan, erronka hori lortzeko modu aktiboan parte hartu ahal izango dugu. Onura asko jaso ahal izango ditugu horrela:

- Zabortegietako lurzoruaren, airearen eta uraren kutsadura murriztea.
- Produktu bat sortzea: konposta, lurzoruaren osagarria dena, eta biogasa sortzeko erabili daitekeena.

Beraz, Duranako, Zurbaoko, Uribarri-Ganboako eta Arroiabeko herritarrei dei egiten diegu egitasmoan parte hartu eta laguntzera, etxeetan hondakin organikoen banaketaren eta birziklapenaren fase berri bati ekiteko. Oso erraza da: deitu udaletxera **irailaren 24tik aurrera**, eta eman izena. **Kubo bat, poltsa konpostagarriak, edukiontzia zabaltzeko txartela eta eskuorri bat emango dizkizugu.**

Horrez gain, **herri bakoitzean BIRZIKLAPENAREN FESTA bat** antolatuko dugu. Bertan, edukiontzi horien funtzionamenduaren gaineko informazioa egongo da, eta birziklatutako materialekin eskulanak egiteko tailerrak ere egongo dira.

## EL QUINTO CONTENEDOR DE RECOGIDA SELECTIVA DE LOS RESIDUOS ORGÁNICOS

*El Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia pone en marcha una nueva recogida de la fracción orgánica.*

En el municipio en la actualidad se cuenta con la recogida selectiva de tres fracciones (vidrio, papel y cartón y envases ligeros de plástico y metálicos). Su recogida separada permite llevarlas a reciclar y así poder recuperar la materia prima para elaborar nuevos productos y además, tener un retorno económico que ayuda a su gestión.
La cuarta fracción "el resto" mal denominada "orgánica", posee más de un 40 % de biorresiduos (peladuras de fruta y verdura, restos de carne y pescado, cascaras, etc.) que se pueden recoger también de manera selectiva y poder gestionarlos y transformarlos para evitar su impacto en nuestro entorno.
Por tanto, *¿Por qué no convertir estos residuos en recursos?*
Con la futura recogida de la fracción orgánica mediante el **quinto contenedor** de color marrón, y el **compostador doméstico**, entre tod@s y de manera voluntaria, podemos formar parte activa de la consecución de este desafío que nos beneficiará en muchos aspectos:

-Evitar parte de la contaminación del suelo, aire y agua que se da en los vertederos.
-Producir un producto, el compost, que sirve de enmienda a los suelos y además se pueda producir biogás.

Por tanto, hacemos un llamamiento a la participación y colaboración de los habitantes de Durana, Zurbano, Ullibarri-Ganboa y Arroiabe para iniciar una nueva etapa de separación y reciclaje de la fracción orgánicaen los hogares. Simplemente llama al ayuntamiento y **apúntate a partir del día 24** de septiembre, **te regalamos un cubo, bolsas compostables, la tarjeta de apertura y un folleto.**

Además, vente a la **FIESTA DEL RECICLAJE que se celebre en tu localidad** donde habrá un punto de información para dar a conocer el nuevo funcionamiento de estos contenedores y también se organizarán unos talleres de manualidades con materiales reciclados.

# ARRATZUA-UBARRUNDIAn

**MATERIA ORGANIKOA BIRZIKLATZERA GOAZ**
**CON EL RECICLAJE DE LA MATERIA ORGÁNICA**




¡VEN A INFORMARTE A LA FIESTA DEL RECICLAJE!!



HURBIL ZAITEZ BIRZIKLAPENAREN FESTARA!!

## EMAN BOSTEKOA
### MATERIA ORGANIKOAREKIN

## CHOCA LOS CINCO
### CON LA ORGÁNICA

## NUEVO CONTENEDOR MARRÓN PARA LOS RESIDUOS ORGÁNICOS

**FIESTA DEL RECICLAJE Y PUNTO DE INFORMACIÓN:**

21 de Septiembre: Ullibarri-Ganboa_16:30 horas (Plaza iglesia)

21 de Septiembre: Arroiabe_ 18:00 horas (Plaza centro social)

22 de Septiembre: Zurbano_17:30 horas (Frontón)

29 de Septiembre: Durana_17:30 horas (Sologana)

## MATERIA ORGANIKORAKO BOSGARREN EDUKIONTZIA

A PARTIR DEL 24 DE SEPTIEMBRE TAMBIÉN TE PUEDES APUNTAR EN EL AYUNTAMIENTO

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava